

# Beldurra galdu beharra dago, euren indarra baita

**B**anaka banaka laneko eskubideak eta eskubide sozial guztiak suntsitzen ari dira. Ezin dugu axolagabekeria geratu eta gauzak horrela utzi. Denoi eragiten digu. Horregatik Greba Orokorra deitzen diegu...

- 1.** Prestazio sozialak murriztu eta pobrezia edo bazterketara kondenatzen dituzten pertsonak. Bereziki emakumezkoak, populazio erdia izanik, beste zigorra ezartzen baita: murrizketa horien koltxoia izatea.
- 2.** Langabezian daudenei, egungo politikak enplegua suntsitzen dutelako eta enplegu bat topatzeko aukerarik gabe uzten dutelako; are eta gutxiago enplegu duina. Nahiz eta emakumezko geroz eta gehiago lana "soberan" izan.
- 3.** Gazteoi, %47,6ko langabeziako tasa dutenak. Inoiz egokien prestaturik dagoen belaualdia beharturik dago miseriazko enpleguaren bila lehiatzeko edota atzerriratzeko.
- 4.** Erretiroan dagoen jendeari, haiek nozitzen dute eta gobernuek erabaki izana Bankari diru publikoa emateko euren pentsioak murriztu behar direla.
- 5.** Dendari txikiei ere, zuek ondo bai dakizute joko maltzur honetan galtzaile zaretela, denda handiak txikia jaten baitu. Gainera, zuen lanbideak ez du etorkizunik jendeak erosteko ahalmenik ez badu.
- 6.** Orain arte geneukana lortzea zenbat kostatu den jakitun diren gurasoei. Orain dena botatzen ari dira. Gurasook oldartu behar dugu ez badugu nahi bidegabeko gizartea utzi gure seme-alabei.
- 7.** Sektore publikoa nahiz pribatuan enplegua duen pertsona orori eta soldata eta lan baldin-

tzatan erasotzen zaionari. Bereziki prekarietatean dagoen jendeari. Doako eta unibertsalak diren zerbitzu publikoetarako eskubidea denona da, gobernuek kolokan jartzen badute ere. Eta guztioi, jakin dezagun enplegu duina izatea ez dela pribilegioa, eskubidea baizik.

- 8.** Hainbeste gezurrekin nazkaturik dauden ordezkari politikoei, beren lana asko behar dugu eta. Zintzotasunatik bere alderdiei eta legebiltzarretara eraman ditzaten kalearen nahia. Kalearen nahia da eremu demokratikoaren adierazpidea. Politikari hauek uko egiten diote hiritarrak esplotatzeari eta politika ulertzen dute bestean zerbitzuan denontzako bizitza duina izateko.
- 9.** Orohar elkartasuna eta zuzentasuna hitzek zerbait esan, bihotzera iritsi eta hunkitzen direnei. Pobrezia gure inguruan egunero hazi eta horrela ezin dela duin bizi pentsatzen dutenei.
- 10.** Behar dugun aldaketaren itzaropena galdu ez dutenei eta gizartearen aginte mobilizatua- ren alde borrokatzen direnei, gauzak alda daitezten. Ustelkeriarekin nazkaturik daudenei, injustiziak ezartzen dituzten alderdi berberak kutsaturik baitaude eta. Birsortze politiko eta demokratikoa beharrezkoa dela sinesten dutenoi.

Guzti guztioi, greba orokorrak suposatzen duen ariketa demokratikoan parte hartzea eskatzen dizuegu, baita ere egun horretarako deitu diren mobilizazioetan. Ezinbestekoa da beldurra galtzea eta denok elkarrekin oihukatzea indarririk ez duten betiko sologanak: **JUSTIZIA, LANA, DUINTASUNA ETA DEMOKRAZIA.**

m  
30

GREBA  
ORO KORRA

ELA  
EUSKAL SINDIKATUA

¡A LA CALLE!